

AUSARTA IZAN BEHAR DUZU MUNDUARI AURRE EGITEKO

Behin batean, Los Angeleseko kale elurtu batetik zehar txakur bat zihoan. Txakurra, txikia, txuria eta iletsua zen, eta begi beltz handiak zituen. Bere izena Elur zen, elurra bezain txuria zelako deitzen zioten horrela. Elur bakarrik zegoen etxetik bota zuten eta. Goseak amorratzen zegoen, eta elur artean ezkutuan zebilen janari bila.

Hortik gutxira, haragi usaina hartu zuen, gertu zegoen jatetxe batetik usaintzen zuen, "Meat for Us" izenekoa. Txakurrak zuen gose guztiaren ondorioz sartzea erabaki zuen. Atzeko atetik sartu eta lehenik sukaldea ikusi zuen eta haren begi handien aurrean saiheski erraldoi bat. Zerbitzariari zati bat lurrera erori zitzaion. Elur azkarra zen, eta zerbitzariak lurrera begia biratu orduko Elur saiheski zatia ahoan zuela ihes egin zuen jatetxe hartatik. Urrun egin zuen korrika gehiago ezin izan zuen arte.

Horrela elikatu zen ondorengo egunetan, jatetxeetan sartuz eta jendeari janaria lapurtuz. Lagun bat ere egin zuen, Rudolf izenekoa. Rudolf beltz-beltza zen eta handia ere bai, Elur zenaren kontrakoa. Rudolf ez zuten etxetik bota, berak egin zuen ihes, gaizki zaintzen zutelako. Jolasean zebiltzan batean, kaleko txakurrak harrapatzen zituenak haiek ikusi eta atzetik korrika atera zen.

Elur azkarra eta iheskorra zen eta onik atera zen, Rudolf ordean geldoa zen eta preso geratu zen txakur harrapatzailearen eskuetan.

Hurrengo egunean ere ikusi zuen, eta hurrengoan ere bai, elur artean ezkututzen zen Elur egun haietan. Elurra urtzen joan zen, eta egun batean Elur ere harrapatu zuten.

Elurrek leku beldurgarri batera eramango zutela uste izan zuen, baina txakur gehiago zeuden leku batera eraman zuten. Leku hartan Rudolf ikusi zuen, oso pozik jarri ziren biak egunero jolasten zuten biak txakur gehiagorekin. Aste batzuk pasata familia bat etorri zen, neskatala bat zuen bikote bat.

- Kaixo! -esan zuen familiak.
- Ongi etorri, zer eramatea nahi duzue? -erantzun zien bertako langileak.
- Txakur bat nahi dugu. -erantzun zioten familiako kideek.
- Etorri! -esan zuen lanean zebilenak.
- Amatxo, Aitatxo! Txuri, txiki hori nahi dut begi beltz handiak ditu eta oso polita da! -esan zuen neskatalak.
- Egia da oso polita da. -erantzun zuten gurasoek.
- Eraman dezakegu etxera? -esan zuen neskatalak berriz.
- Nahi baduzu? -erantzun zion amak.
- Horretara etorri gara, ez? -esan zuen aitak.
- Bai, bai aita egia da. -esan zuen alabak.
- Aukeratu duzue? -galdetu zuen bertakoak.
- Bai. -esan zuen amak.
- Zein eramango duzue? -galdetu zuen berriz.

- Begi beltz handiak dituen txiki eta txuria nahi dut. -erantzun zion umeak.
- Txuri hau. -esan zion bertakoak.
- Bai. -esan zuen pozik neskatilak.

Poz-pozik joan ziren denak etxera, eta "Txuri" deitu zioten.

Egunero elkartu ohi zen Rudolfekin, bera familia batek eraman zuen etxera, familia hura Elurren familiaren lagunak ziren, horregatik jolasten zuten egunero. Oso ausarta izan zela oroitzen zen eta oso pozik jartzen zen etxe baten zegoela, familiarekin eta salbu. Pozik bizi izan zen betiko.

Txakurra